

Joseba Arregiri gutun irekia

LEHENDAKARIARI egindako zure gutuna pribatua omen zen. Beno, erakunde eta pertsonalitate publikoen arteko gutunak, beren karguaren izenean egindakoak, izan ote daitezke pribatu? Gehienik ere erreserbatuak izango dira. Dena dela, publiko bihurtu da zure gutuna: jendaurreko. Eta horra nondik nabarmentzen zaizkigun zeure lumatik, zure jokabide eta pentsabide aski ezagunekin batera, horien azpian dauden zure barruko fantasmak eta zure mamuak. Egia esan, horiek ere ez zitzaizkigun ezezagunak.

EGUNKARIAN irakurri dut aurrenik, Joseba Arregiren 'paperetan' agertzen naizela, nere izen-abizen eta gutzi: «EKB edo Paulo Agirrebaltzategi (...), bai bera eta presidentzen duen elkarte HBren kide/tresna direlarik (...).»

Duela urte batzuk, antzeko zozokeria ikusi behar izan nuen beste egunkari batean. Orduan autore-artikuluia zen, EKBk Ikastolen Konfederakundearekin batera zeraman Bateginik ekintzaldi handi haren inguruan idatzia. Erantzuna idatzi ere egin nuen orduan, neri zegokidana gezuratzeko; baina argitaratu gabeko beste paperen artean geratu zen. Egia esan, nere adiskideek badakite ez zaidala gustatzen ene buruaren inguruko solasetan eta eztabaidetan nahasia jendaurrean ibiltzea —lotsaren kontua, badakizu—; ez zait gustatzen, ezta nere burua zuritzeko ere; ezta inork komunikabideetan botatako nereko gezurren bat gezuratzeko edota ergelkeriaren bat zuzentzeko ere. Baina hasierako zozokeria topikoa erraz bihurtzeko bidean doanean, badirudi beharrezkoa dela bidea moztzea.

Oraingoan berriro nerekin batera EKB ere nahasten duzu zure paperetan; honela dio esku artean dudan erdarazko testuak: «... gente que pertenece a ese colectivo de Kultur Kezka, como EKB y su presidente P. Agirrebaltzategi, tanto él como persona como la asociación que preside miembros/instrumentos de HB».

Ez du inolako zalantzarik nonbait gure kontseilariak. Ez dago inolako hipotesi-kutsurik. Jakin daki itxuraz gizonak, eta lehendakariaren aurrean ziurtasun osoz salatzen moduan bide daki gainera. Benetan al dakizu, jakin, Joseba? Eta ziur al zaude horretaz? Ez, ez dakizu —seguruenik okerra dela badakizu—. Baina idatzi egin duzu, hala ere. Ziurtasun osoz. Bota egin duzu... Lehendakariari sinets arazi nahi diozu, zure protestak eta iritziak sinetsgarriak egiteko.

Ez dakit zure okerra —itxurazko konbentzimendua— desegiteko balioko duenik, baliagarri baitzaitez nonbait, baina xalo-xalo esan behar dizut, ni ez naizela HBko kidea. Areago, ez dakit HBko kide izatea zer den: ez zeintzuk diren horren eskubideak ez zeintzuk horren eginbideak. Ez naiz HBren inolako batzarretan inoiz izan: ez herrikoetan, ez eskualdeetan, ez nazionalen. Ez dut inoiz kuota-rik ordaindu... Ez dakit kuota-rik daukanik ere HBk.

Agian nik HBri jendaurrean uko egitea nahiko zenuke gutun ireki honen bidez. Begira: ezin! Ez naizelako HBko kidea eta se-

kula izan ez naizelako. Ergelkeria ez da HBko kidea izatea, horrelako 'argumentuak' inoren kontra erabiltzea da ergelkeria —maltzurkeria—?; neretzat HB errespetagarria da, beste erakunde politikoak bezala. Eta errespetagarriak dira HBko kideak beste alderdijetakoak bezala. Baina ni neu ez naiz inolako alderdi edo erakunde politikotako. Argiago, ezin!

Zure idazkiko bi lerrotako baieztapen borobilei erantzunez, zera gehitu behar dizut: EKBren lehendakari naizenez, esan diezaket EKB ez dela sekula Kultur Kezkakoa izan, izaterik ere ez zeukalako, besteren artean. Lagunbanakakoak ziren Kultur Kezkakoak, eta ez erakundeak. Erakunde bezala, EKBk lana egin zuen Kultur Kezka eratzin; baina ez zen izan Kultur Kezkakoa. —Horrelako bereizkuntzak gutuz aruntak eta ulergarriak dira seguruenik zuretzat—. Ni neroni, berriz, Kultur Kezka-ren kezkekin bat etorri arren, ez nintzen sekula Kultur Kezkakoa izan. Uste dudanez, dagoeneko desagertua da talde hura.

BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ESKATU DIZUT, EKBREN IZENEAN, ELKARRIZKETA, ELKARRIZKETAREN BIDEZ ARGITZEN DIRELAKO INONDIK JASOAK ETA NORBERAK ASMATUAK DITUEN SUSMO TXARRAK. EZ DIGUZU INOIZ ERANTZUNIK ERE EMAN.

EKBri buruz oraindik beste zerbaite erantsi nahi dizut zure argitasunerako. Ni neu eta EKB «miembros/instrumentos de HB» omen gara. Zuk badakizu bi hitzen arteko barratxo horren interpretazio aski iluna eta gutxi gorabeherakoa izan ohi dela maiz: bata nahiz bestea, bata ala bestea, bata edota bestea adierazi ohi ditu, kasuen arabera. Zuk zeuk gorapean handiz aurkezturiko 'Idazkera Liburua-n' ez da agertzen zure kasua. Interpretazio-arazoetan sartu gabe, zuk bota egin duzu bata nahiz bestea: «kideak», «tresnak». Agian batarekin ez bada, bestearekin asmatuko duzulakoan. Baina ez batarekin ez bigarenekin ez duzu asmatu. Bi kalifikatioboak pluralean daudenez, nerontzat eta EKB 'elkartearantz' dira nonbait biak. Baina nola? P. Agirrebaltzategi izan zitekeen teoriarik HBko kidea —baina ez da orain eta ez da izan inoiz, goian argitu dizudanez—. EKB bezalako erakundeak —elkar-

teak—, berriz, HBko kide izatea ez dut uste erakunde politikoak onartuko duenik. Harrigarria litzateke bestelakoa!

«Intrumentos»? Botatzen hasiz gero, zergatik ez jarri beste barra-pilota, eta «sector/órgano/plataforma/infraestructura/superestructura... de HB» tarteatu? Zenbat eta aukera gehiago eman, orduan eta beroago! Beste noizbait «itzaleko ministeritz» izan nahi zuela EKBk salatu zuen norbaitek. Egia argi bat esango dizut Joseba, ez baldin badakizu: EKBko organoetan ez dauka partaide izaterik inolako erakunde politikotan kargudun denak. Hori dela eta, badago EKBko zuzendaritza utzi behar izan duenik, alderdiko kargu politikora aldatzean.

Lehendakariari egindako zure gutuna Sailaren barne-gogoeta omen da, horrek maiz egiten duen analisi politikoetako bat —egia esan, ondoren 'inpresio personal' bihurtu dira Saileko gogoetak—. Susmoak eta mamuak behin baino gehiagotan jaulki —jaurti— ohi dituzte jendaurrea egiazko salatatzat politikariren batzuk, beren menpe ez dauzkaten erakunde sozialen eta horietako kargudunen aurka, ea erreplikatu eta za balduz sinetsgarri gertatzen diren. Eta behin baino gehiagotan lortu egiten dute horiek topikoa eta benetako arma bihurtzea... Kultur sailburuak bilatu beharko lukeen gizarteke harreman irekien eta elkarrizketen kalterako da hori, benetako komunikazio soziala eragotzi besterik ez bait dute egiten horrelako 'argumentuak'. Behin baino gehiagotan eskatu dizut, EKBren izenean, elkarrizketa, elkarrizketaren bidez argitzen direlako inondik jasoa eta norberak asmatuak dituen susmo txarrak. Ez diguzu inoiz erantzunik ere eman.

Dena dela, Sailaren barneko azterketa politiko 'serioan' eta Lehendakariari eskaintako gogoeta personal-instituzional zortzak egitean, ez nuen uste izango, jendea begira jaurtitako 'arma merkeak' erabiliko zenuenik, eta topikoa, susmo txar eta fantasmakeria zozoekin jokatuko zenuenik. Penagarria eta etsizekoa benetan! Dramatikoa da, izan ere, norberak sortu eta jantziriko topikoez eta maniek eraginda politikan eta administrazio publikoan jardutea, horiek norberaren analisi politikoan oinarri eta gorpuzt bihurtuz. Aska zaitez zeuk sorturiko edo zeure buruan 'gorpuztuak' dituzun ireluetatik, horien itzalaren ihesean ibili beharrean. Horrelako obsesioen eta pertsekuzio-maniaren menpe ezin daitezke politika egokirik eta irekirik egin.

Egia esan, gai eskasa da hemen erabili dudana; askozaz garrantzizkoa eta munta handiagokoa da zure gutunean erabili dituzun —eta hitzaldi eta artikuluetan behin eta berriro jaulki izan dituzun— zure iritziak eta kondanak. Horiek kezkatzen naute bereziki, datozen hila-beotean zure Saileko hainbat arazori buruz gerta daitezkeen kezkak kezkatzen nauden bezala.

Dena dela, osasuna opa dizut, eta... urte berri hobe denontzat. Agur!

PAULO AGIRREBALTZATEGI
EKB-KO LEHENDAKARIA

BERRIAK ZIRI



JUANMA BAJO ULLOA
Zinema zuzendaria
EL MUNDO

«Heltzea nerabeza-roan dituzun uste sendoak eta ametsak modu zikinean traizionatzea da. Edo zorakeriak egiteari uztea»



MIGUEL UNZUETA
Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko lehendakaria
ARGIA

«Estatutuaren sistematik ez du luze iraungo, agortzeaz da»



IMANOL ARIAS
Aktorea
DEIA

«Sinetzina da Euskal Herrian ez izatea kalitate zinematografiko gutxiagoko beste erregio batzuetan duten babesa»



ROSA REGAS
Nadal sariduna
EL PAIS

«Bizitza laburregia da bati bururatzen zaion gutzia egin ahal izateko»

ZAKILIXUT

© Olariaga

